

Urte bete lehenago izan zen.

Anarteraino, Pellok egiten zuen bizia bere herriko mutil gehienek parekoa zen han, Nafarroako mendi aldean, Euskal Herri bi zati egiten dituen mugatik hurbil-hurbil. Nekazariak ziren Pelloren aita-ama: lur sail batzuk bazituzten eta aziendak ere bai: behi bakan batzuk eta artaldea. Haiei ogibidea ateratzera saiatzen ziren saiatu ahala.

Urte gaiztoak ziren, ordea. Karlistada bukatu berria zen orduan, eta gerlak utziriko ondorioak begibistakoak ziren: hondamendia eta heriotza nonahi. Pelloren etxean biak sufritu zituzten: anaia zaharrena gerlan hil zioten eta aziendak ere murrizturik gelditu ziren batzuen eta besteen soldaduen harrapaketen ondorioz.

10 Gauzak nola zeuden, Pello ez zen batere harritu halako batean aita honela mintzatu zitzaionean:

- Hamazazpi urte bete berriak dituk eta ez haiz jadanik haur mukizu bat. Etxean aunitz gaituk, sobera. Mutil argia haiz eta ez duk zertaz herrian gelditu. Mundua zabala duk eta hemendik kanpora ere bizi haiteke, etxean baino hobeki beharbada, zuzena eta azkarra izanez gero. Ez haut etxetik bidali nahi, baina...

Aitaren gonbiteak zaflako baten eragina izan zuen Pelloren baitan. Bere burua etxetik kanpo, berak maite zituen lagun eta tokietatik urrun ikusi zuen istant batean, eta barrenean zerbaitek min eman zion.

20 Dena dela, gaia ez zen berria Pellorendako. Etxeko egoera larria ohiko solasa zuen bere lagun Mixelekin biltzen zenean. Mixel, muga pasata zegoen lehen herriko semea zen, lapurtarra hortaz. Mugarriek seinalatzen zuten lerro ikustezin horren inguruan elkartzeko ohitura zuten Pellok eta Mixel, nork bere etxeko artaldea alatzera eramaten zuenean.

- Hemendik airatu behar diagu, mutiko, alde egin! -esaten zion horrelakoetan Mixel. Hemen ez duk ongi bizitzeko manera. Berriz, Ameriketara...

25 Pellok egoteko erantzuten zion beti, gauzak noizbait hobetuko zirela. Aitarekin solastu zen egunean, ordea, ulertu zuen ez zuela gehiago aitzakiarik. Bere lagunarekin ohiko tokian bildu eta hitzetik hortzera bota zion:  
-Noiz Ameriketara?

30 Eta inguruan bien artaldeak elkarrekin nahasten ziren bitartean, bidaia antolatzeari eman zioten.

Arratsaldean, etxera itzultzean, bihotz-minak irauten bazion ere, Pello kontent zegoen hartutako erabakiaz: sei hilabeteren buruan Ameriketara aterako ziren.

Nolakoa izanen zen bidaia? Zer abentura biziko zuten? Arriskurik gertatuko ote zitzaien? Gisa horretako galderak egiten zizkion Pellok bere buruari etxera bidean zela. (...)

35 Pellok eta Mixel Ameriketara noiz eta nola joan erabakia zuten, baina artean zerbait falta zuten: sosak, dirua.

40 Pellok bazuen zerbait bildua: behin merkatari batek ardo garraiatzen laguntzeagatik eman zizkion txanpon horiek; Elizondoko ferian aitatxirekin eskalapo saltzen egon zen batez gelditu zitzaizkion irabaziak... Baina guztiarekin, ez aski. Gehiago behar zuen Ameriketara joateko.

Jakina, alde horretatik, etxean laguntza gutti ematen ahal zioten, denak eskasean izan eta. Hain zuzen ere, horregatik erabaki zuten Pello eta Mixel irteera sei hilabetez atzeratzea: denbora beharko zuten bidaia ordaintzeko adina bilduko bazuten. (...)

45 Ahaleginak eskerrak izan zuen: seigarren hilabetearen hondarrean, Pellok diru multzo polita zuen sakelean. Aitak, gainera, ezustea eman zion mutilari, ardi pare bat saldu eta

irabazia semeari emanez. Lehengoak eta oraingoak batera eman eta banan-banan zenbatu zituen. Bukatu zuenean, irribarreak begitartea argitu zion: bazuen bidaiarako adina.

50 Biharamunean, muga zeharkatu zuen, Mixelen etxeraino. Hark ere, berri ona zuen Pellorendako:

- Nik ere den-dena bildu diat.

Presatu beharra zuten. Itsasontziak hamar egun geroago atera behar zuen Bordaletik eta haraino joateak astebete kenduko zien guttienik.

- Orduan, bi egunen buruan abiatuko gaituk! Erraten du Pellok. (...)

55 Egun handia iritsia, goiz-goizetik jaiki zen. Ez zuen bere tristuraren lekukorik nahi. Sukaldean ogi apur batzuk irentsi, esne pixka bat edan eta handik inor agurtu gabe ateratzeko asmoa zuen. Ustekabe ederra hartu zuen, ordea: familia osoa bere esperoan zegoen etxeko atarian. Gehienak eginahalak egiten ari ziren negarrez ez hasteko. Pellok ere, hunkiturik, eztarria trabatua zeukan.

60 Amari bi muxu eman zizkion lehenbizi.

- Oroitu beti gutaz, maitea. Hire etxea hau duk – xuxurlatu zion emakumeak, zotinak ezin gordez, fardel bat janariz betea ematen zion bitartean.

Aitak solemneki besarkatu zuen.

- Beti gizonki, semea, beti gizonki eta euskaldun, nonahi haizen ere.

65 Banan-banan estutu zituen anai-arrebak. Gero, bere zerak eta dirua altxatzen zituen zakutoa hartu eta mugara abiatu zen, gibelera begiratu gabe.

Aingeru Epaltza, Lur zabaletan.

## **COMMENTAIRE GUIDÉ**

*Testu honen azterketa eginen duzu gogoeta-ardatz hauen inguruan :*

1. Familia horren egoera eta Pelloren abiatze arrazoinak.
2. Euskaldunen atzerriratzea eta euskal diaspora Ameriketan.
3. Gazte-literatura eta *Lur zabaletan* bezalako abentura-eleberriak.

## **TRADUCTION**

Testuko azken lerroen itzulpena egin ezazu, 55. lerrotik 66. lerrora : “*Egun handia iritsia... gibelera begiratu gabe.*”